



ERAIKINAREN DATUAK

Izena eta aldaerak: Larregain.

Auzoa, udalerria: Erenotzu., Hernani.

Dolarearen kokapena: Baserriaren barnean, sagardotegian, erakusketa moduan.

Jabea: Lasarte familia.

DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK

Kronologia: XX. mendekoa.

Iraunaldia: Hamar urte dira tolare honetan ez dutela sagardorik egiten.

Zenbait datu: Hernaniko El Caserio sagardotegitik ekarri zuten duela 40 bat urte. Urtetan egon dira, beraz, tolare honekin lanean. Baina Osasun Saileko ikuskaritzaren eskakizunak betetze aldera eta matxura bat tarteko, zaharra kendu eta hidraulikoa muntatu zuten, eta harekin dabiltza lanean gaur egun. Tolare zaharra, orduan, sagardotegi barnean jarri zuten, erakusketa moduan.

Egungo erabilera: Erakusketak.

Kontserbazio egoera: Ona.

TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**Dolare-prentsa:**

Sagardotegiko jangela nagusiko sakoneko hormaren kontra dago. Hormigoizko askaren erdian zutituta prentsaren ardatza dago, goiko erdia hariztatua duela. Zati horretan muntatua, burdinazko palanka bidez eskuz eraginda ardatzean gora eta behera mugitzen den burua du, estutzeko mekanismoa eta altzairuzko urkaz osatua. Urkaren azpian jotako sagarra zanpatzeko erabiltzen den egur-muntaia du: txorrota edo hodiak, giltza edo trumukuak eta patsolak. Askaren kantalerek sarea dute buelta guztian. Tolareko pieza guztiek bere izena daramate, eta atzeko hormak, baserri, belardi, sagasti eta gurdi-barrikaz konposatutako paisaia irudikatzen duen tamainako handiko pintura du marraztua.

Dolarearen osagarriak:

- Askaren ezkerrean lehen erabiltzen zuten matxaka.

Argazkiak: 36.01, 36.02.

GAKO-HITZAK

Eskuzko trakzioa, matxaka, Hernani.

OHARRAK

- Erakusketa moduan edo ez bada, ez dute tolarea erabiltzen.
- Sagardoa egiteko zilindro hidraulikozko tolare modernoa dute.

GALDETEGIA

Informatzailea: Isabel Lasarte.

Datu bilketaren egilea: A.Agirresarobe, J.Tellabi

Datu bilketa data: 2010eko martxoaren 23a